

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

Jabari publikoaren aprobetxamenduaren tasaren 2021eko ekitaldirako ordenantza fiskalari behin-behineko onespena ematea

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean egongo den Jabari publiko lokalaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziaren tasa —energia elektrikoa, gasa, ura eta hidrokarburoak garraiatzeko instalazioak— arautzeko ordenantzari behin-behineko onespena ematea erabaki zuen Vitoria-Gasteizko udalbatzak 2020ko urriaren 23an egindako osoko bilkuran.

Uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutakoaren ildotik, testu osoa San Martineko udal bulegoetan —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 - behea— jendaurrean egongo dela jakinarazten da, interesdunek aukera izan dezaten dosierra aztertu eta egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko, hogeita hamar eguneko epean, iragarki hau argitaratzen den egunetik. Helbide elektroniko honen bitartez ere lortu ahal izango da dosierraren edukiari buruzko informazioa: ordenanzas.fiscales@vitoria-gasteiz.org. 2020ko abenduaren 10ean bukatuko da erakustaldia. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betikotzat joko da ordura arte behin behinekoa zen erabakia.

Orobat egongo da eskuragarri hemen: www.vitoria-gasteiz.org/zergak

Vitoria-Gasteizen, 2020ko urriaren 23an

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria
IÑAKI GURTUBAI ARTETXE